

XXIX. IGANDEA URTEAN ZEHAR (A)

Otoitza

Jainko ahalguztidun betierekoa,
egizu, Zuri eskainirik bizi gaitezela beti
eta bihotz leialez zerbitza zatzaigula.
Zure Seme Jesu Kristo.

I. IRAKURGAIA: Is 45, 1. 4-6

*Eskutik daramat Ziro,
eta honek herriak menperatuko ditu.*

Isaias Profetaren liburutik

Honela mintzo zaio Jauna bere gantzutuari,
eskutik daraman Zirori,
honek menperatuko baititu,
eta erregeei gerriko armak kenduko dizkie;
ateak bere aurrean zabalduko zaizkio,
eta sarrerarik ez zaio itxiko:
«Jakob nire zerbitzariarengatik,
Israel nire aukeratuarengatik,
zure izenez deitu zaitut,
izen handi bat eman dizut,
zuk Ni ezagutzen ez banauzu ere.
Ni naiz Jauna, eta ez da besterik;
ez da jainkorik, Ni baizik;
Nik jazten dizkizut gerriko armak,
zuk Ni ezagutzen ez banauzu ere;
eguzki alde batetik besteraino jakin dezaten,
ez dela Ni besterik.
Ni naiz Jauna, eta ez da besterik».

ERANTZUN SALMOA: Sal 95, 1-3. 4-5. 7-8. 9-10ac

R/. Eman Jaunari ospe eta goraldi.

Kanta Jaunari kantu berri,
kanta, lur osoa, Jaunari.
Kanta Jaunari, bedeinka Haren izena,
iragarri egunez egun Harengandiko salbamena.
Zabaldu Haren ospea atzerrietan,
Haren mirariak herri guztietan. R/.

Handi baita Jauna, eta guztiz goresgarri,
jainko guztien aldean itzalgarri.
Iduri huts dira atzerriko jainko guztiak,

Jaunak, ordea, zeruak egin ditu. R/.

Herrietako sendiak, eman Jaunari,
eman Jaunari ospe eta goraldi.
Eman ospe Jaunari bere izenaren ederrez,
sar zaitezte Haren atarrietan opariak eramanez. R/.

Jauretsazue Jauna jantzi gurenekin,
ikara zaitez, lurbira guztia, Haren aurrean.
Esazue atzerrietan: «Jauna errege da,
herriak zuzenbidez epaitzen ditu.» R/.

II. IRAKURGAIA: 1 Ts 1, 1-5b

*Gogora ekartzen ditugu
zuen sinesmena, maitasuna eta itxaropena.*

San Paulo Apostoluak Tesalonikarrei
egindako lehenengo epistolaren hasiera

Paulo, Silbano ete Timoteok, Tesalonikan Jaungoiko Aitaren eta Jesu Kristo Jaunaren eliz
batzarkide zaretenoi: grazia zuei eta bakea.

Jaungoikoari eskerrak ematen ari gara beti zuen guztiongatik, gure otoitzetan etengabe gogoan
zaituzteguna. Jainko gure Aitaren aurrean gogora ekartzen ditugu zuen sinesmen egintzak, zuen
maitasun lanak eta itxaropenaren sendotasuna Jesu Kristo gure Jaunarengan.

Badakigu, senideok, Jaungoikoaren maiteok, Hark aukeratuak izan zaretela. Izan ere, hotsegin
zitzaizuen Ebanjelioa ez zen hitz hutsetan gelditu zuengan; Espiritu Santuaren indar aberats
bihurtu zen eta sinesmen sakon.

EBANJELIOA: Mt 22, 15-21

Aleluia: Flp 2, 15b-16a

R/. Aleluia.

V/. Izar argiak bezala agertzen zarete munduan,
bizitzaren zentzubide bat emanez. R/.

*Emaiozue Zesarri Zesarrena,
eta Jainkoari Jainkoarena.*

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik

Aldi hartan, farisearrek batzarra egin zuten, Jesusi hitzetik nola helduko zioten; eta beren
ikasleetako eta Herodesen aldeko batzuk bidali zizkieten. Hauek galdetu zioten: «Maisu,
badakigu egiazale zarela, eta Jaungoikoaren bidea egiaz erakusten duzula, inorengatik atzera egin
gabe, ez baituzu nor zein den begiratzen. Esaguzu, beraz; zer deritzazu: zilegi al da Zesarri zerga
ematea, ala ez?»

Jesusek, haien azpikeria ezaguturik, esan zien: «Itxurazale maltzurak! Zer zabilzate Ni
zirikatzen? Erakutsazue zerga txanpona». Haien denario bat ekarri zioten
Berak orduan: «Norenak dira, irudi hau eta idatzi hau?» Eta Haien: «Zes:

«Emaiozue, bada, Zesarri Zesarrena, eta Jainkoari Jainkoarena».

Oparigaien gainekoa

Iguzu, Jauna,
dohain hauek bihotz zabalez eskaintzean,
zarbitzari gaituen sakramentu honek
garbi gaitzala.
Jesu Kristo.

Jaunartze ondorengoa

Eukaristia ospatzea balia dakigula, Jauna,
bitzta honetarako laguntza izan dakigun
eta betikorako argi.
Jesu Kristo.